



## AURREKONTU ZUZENDARITZAREN TXOSTENA EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOARI BURUZ (2021-2024)

Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 69/2021 Dekretuak xedatzen du, Aurrekontu Zuzendaritzaren egitekoen artean, eduki ekonomiko esanguratsua duten arau-proposamenei, planei, hitzarmenei eta erabakiei buruzko txostenak egitea, aurrekontu-eragina ebaluatzeko eta dagozkion doitze-neurriak proposatzeko, EAEko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren 27.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik (testu bategin hori urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen).

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak egindako Euskararen Agenda Estrategikoa (2021-2024) jaso dugu, eta Aurrekontu Zuzendaritzak honako txosten hau egiten du.

XII. Legegintzaldirako Jaurlaritzak daukan Plan Estrategikoen parte da Euskararen Agenda Estrategikoa, eta haren osagaiak plan hauek izango dira: Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia, Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana, EAEko Justizia Administrazioan Hizkuntza Normalizatzeko Plan Orokorra, Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana eta EITBko Euskararen Erabilerarako Plana.

Agenda Estrategikoaren konpromiso eta ekimenen garapenaren kudeaketaz Hizkuntza Politika Sailburuordetza (HPS) arduratuko da, baita honako zuzendaritza eta erakunde hauek ere: Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza, Euskara Sustatzeko Zuzendaritza, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza, eta HABE, organismo autonomo administratiboa.

2021eko ekitaldirako Euskararen Agenda Estrategikoaren kostua 130.089.000 euro izango da eta 2022rako 135.947.478 euro aurreikusten da. 2023ko eta 2024ko zenbateko osoak 141.229.370 euro eta 146.545.798 euro izango dira, hurrenez hurren.

Agendaren baliabide ekonomikoen zehaztasunak EAEko aurrekontuen egitura funtzionala oinarritzat hartzen du eta beraien zuzkidurak jasotzen dituzten programak hauexek izan dira: 4711-Hizkuntza Politika, 4712-Administrazio Publikoaren Hizkuntza Normalkuntza, 4313-Helduen Alfabetatze eta Berreuskaduntzerako Erakakundea (HABE), 4714 Euskalduntzea eta Hizkuntza Normalkuntza (IVAP), eta 4715-Hezkuntza Sistemaren Euskalduntzea.

Horretaz gain, Agendari dagozkion Etxepare Euskal Institutuaren zenbatekoak aurreikusten dira.

Halaber, Agendan aipatzen den bezala, Hizkuntza Politika Sailburuordetzarekin batera jorratzen diren erabilera-planetako baliabide ekonomikoak ez dira zehaztu dokumentuan.



Agendaren aurrekontu-bilakaera

(euro)

<i>EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOA</i>	2021	2022	2023	2024
4711- Hizkuntza Politika <sup>(1)</sup> <i>HPS</i> <i>HABE</i>	64.929.000 22.329.00 42.600.000	69.017.498 22.998.870 46.018.628	72.419.623 23.688.836 48.730.787	75.799.833 24.399.501 51.400.332
4712- Administrazio Publikoaren Hizkuntza Normalizazioa	10.545.000	10.861.350	11.187.191	11.522.806
4713- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE)	8.264.000	8.327.100	8.448.780	8.574.170
4714- Euskalduntzea eta Hizkuntza Normalizazioa (IVAP)	753.000	775.590	798.858	822.823
4715- Hezkuntza Sistemaren Euskalduntzea	44.278.000	45.606.340	46.974.530	48.383.766
Etxepare Euskal Institutua (% 40)	1.320.000	1.359.600	1.400.388	1.442.400
<b>GUZTIRA</b>	<b>130.089.000</b>	<b>135.947.478</b>	<b>141.229.370</b>	<b>146.545.798</b>

(1) 4711-Hizkuntza Politika izeneko programak bi azpi-programa jasotzen ditu: batetik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari dagokion aurrekontua; bestetik, HABE erakundeari egiten zaion diru transferentzia.

Hona hemen Agendaren urtekoigoeren bilakaera, ehunekotan:

<i>EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOA</i>	2022/21 (%)	2023/22 (%)	2024/23 (%)
4711- Hizkuntza Politika <i>HPS</i> <i>HABE</i>	6,3 3,0 8,0	4,9 3,0 5,9	4,7 3,0 5,5
4712- Administrazio Publikoaren Hizkuntza Normalizazioa	3,0	3,0	3,0
4713- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE)	0,8	1,5	1,5
4714- Euskalduntzea eta Hizkuntza Normalizazioa (IVAP)	3,0	3,0	3,0
4715- Hezkuntza Sistemaren Euskalduntzea	3,0	3,0	3,0
Etxepare Euskal Institutua (% 40)	3,0	3,0	3,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>4,5</b>	<b>3,9</b>	<b>3,8</b>

Dokumentuaren lehenengo zutabean 2021erako EAEren Aurrekontu Orokorren onartutako aurrekontu erreala jaso da, eta ondoren, urtez urteko kopuruak aurreikusteko, programa bakoitzari %3ko igoera ezarri zaio.

Baina badago salbuespen bat HABE erakundeari dagozkion partidetan erabilitako irizpidean: 4711-Hizkuntza Politika atalean zein 4713-Helduen Alfabetatzeeta Berreuskalduntzerako Erakundea atalean, kopuruak aurreikusteko kontuan izan da Euskaltegi Pribatuen Finantzaketa Berria eta Sailak 2021eko apirilean hartutako konpromisoa. Hori dela eta, 4711 programan, HABErentzako transferentzien igoerak % 8,0, % 5,9 eta % 5,5 dira, 2021-22, 2022-23 eta 2023-24 aldietarako, hurrenez hurren. Era berean, 4711 programa osoaren igoerak %6,3, %4,9 eta %4,7 izango dira aztertutako aldietarako.

HABEk 4713-Programan dituen gainerako partidetan igoera apalagoak izango dira aztertutako aldietarako: %0,8, % 1,5 eta % 1,5 dira, hurrenez hurren.

Beste aldetik, 2021erako Agendan Etxepare Euskal Institutuaren partaidetza 1.320.000 euro izango da, hau da, bere ustiapen-aurrekontuaren %40. Atal honetan ere 2022ko, 2023ko eta 2024ko hazkundera %3 izango da urtero. Baina ez da zehazten Agendaren garapenari dagozkion Institutuaren ustiapen-aurrekontuaren partidarik ezta konturik ere.

## **ONDORIOAK**

Orokorrean, 2021erako EAEko Aurrekontuetan jasotzen dira ekitaldi horretarako Euskararen Agenda Estrategikoak zehazten dituen aurrekontu-zuzkidurak.

Beste aldetik, Eusko Jaurlaritzako, Osakidetzako, Justizia Administrazioako, EITBko eta Ertzaintzako euskararen erabilera-planen kopuruak ez dira zehaztu Agenda honetan.

2022ko, 2023ko eta 2024ko ekitaldietan Euskararen Agenda Estrategikoko jarduerak gauzatzeko baliabide-aurreikuspenei dagokienez, dokumentuak urtero %3ko hazkundera proposatzen du, Euskaltegi Pribatuen Finantzaketa Berriaren salbuespena izan ezik. Atal honetan, eta euskaltegi pribatuen finantzaketa-plan berri honen ondorioz HABErentzako sailaren transferentzien igoerak % 8,0, % 5,9 eta % 5,5 izango dira, 2021-22, 2022-23 eta 2023-24 aldietarako, hurrenez hurren. Horrek berekin dakar, halaber, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aurrekontu-hazkundera aztertutako aldian.

Hala ere, kontuan hartu behar da Agendaren aurreikuspen horiek (%3ko hazkundera nahiz euskaltegi pribatuen finantzaketak eragindako hazkundera), nahitaez, aurrekontu-egonkortasunaren arloan urte horietan indarrean egongo diren irizpideekin bat etorri beharko dutela. Hori dela eta, 2022ko, 2023ko eta 2024ko ekitaldietako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailako aurrekontu-proiektuek, bere gain hartu beharko dituzte Euskararen Agenda Estrategikoaren aurreikuspenak. Edonola ere, Agendaren jarduerak aurrera eramatean, sor daitekeen edozein behar gehigarri, sailako erakunde publikoetan eta sail bertan dauden zuzkidurak berresleitzearen bidez finantzatu beharko da.

Nolanahi ere, beharrezkoa da ohartaraztea Agendaren zenbatekoak ez direla izango, inola ere, aurrekontu-konpromisoak, zeren eta aipatutako konpromisoak urteko Aurrekontu Orokorretan agertzen direnak bakarrik baitira; beraz, planak aurrera eramateko, urteko zuzkidura ekonomikoak egokitu beharko zaizkio EAeko Aurrekontu Orokorren legeek xedatzen dutenari.

Josu I. Garay Ibáñez de Elejalde  
AURREKONTU ZUZENDARIA